

# XXI. mendeko etnomusikologiaren inguruan: folklorismoaren auzia, arloaren ikasketak eta eztabaida

Igor Saenz Abarzuza  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Etnomusikologiaren bilakaera antropologia eta musikologiari lotuta egon da eta horrela jarraitzen du gaur egun. Arloak, pixkanaka, ibilbide propio eta sendo batekin, bere bidea aurkitu du, ikerketa-eremuak handituz eta kide dituen aipatutako alorretan eraginez. Etnomusikologoaren profilak folkloristaren ezaugarri batzuk mantentzen ditu, baina biziki aldatu da: egun, arloa guztiz zientifikoa da. Bestetik, folklore eta folklorismo terminoen arteko ertzen inguruko problematika dago. Artikulu honetan, aipatutakoaren ildotik, arloaren auzia eta dituen eztabaidak aurkezten dira. Horrez gain, etnomusikologia ikasteko dagoen aukera sakabanatua azaltzen da, Euskal Herriko egoerari hanpadura berezi bat eskainiz.

GAKO-HITZAK: Etnomusikologia · Musika tradizionala · Musika-ikasketak · Folklorea.

## **Ethnomusicology in the 21st century: the issue of folklorism, learning opportunities and discussion of the field**

The evolution of Ethnomusicology has been (and still is) linked to Anthropology and Musicology. Little by little, the area has found its way and has built its own solid trajectory. Its research scope has also expanded, and it shows evident influences in other related research areas. The profile of the researcher in the field has changed greatly, and while retaining some of the characteristics of the folklorist, today ethnomusicology is completely scientific-oriented. Directly related to the topic lies, the challenge of detecting the borders between folklore and folklorism. This article discusses the aforementioned matters, challenges that the field faces, and central research questions. In addition, the scattered opportunities to study ethnomusicology are explained, with a special insight in this text, about the situation in the Basque Country.

KEY WORDS: Ethnomusicology · Traditional music · Music studies · Folklore.

## 1. Musikologia eta etnomusikologia

Harluxet hiztegiak honela definitzen du musikologia: «Musikaren historia eta teoriaren zientzia». Musikologoa, berriz, «Musikologian aditua» litzateke. Nabarmena bada ere, hiztegi horrek ez du «Etnomusikologia» terminoarentzako adierarik<sup>1</sup>. Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean argitaratutako Musika Hiztegiak, ordea, etnomusikologiaren definizioa<sup>2</sup> biltzen du:

Musika kulturaren testuinguruan aztertzen duen jakintza. Munduko musiken eta kulturen arteko erlazioak aztertzen ditu, dela bakoitzaren berezitasunak zehazteko dela musikaren ezaugarri komunak bilatzeko. Zenbaiten arabera, etnomusikologiaren aztergaia mundu zabaleko musika tradizionalak dira, mendebaldeko musika kultua alde batera utzita.

Hiztegi horrek honela definitzen du «musikologia» terminoa: «Musikaren historiaren eta teoriaren zientzia. Musikologiaren aztergaia zabala da, eta musikaren alderdi asko hartzen ditu: musikaren teoria, musikaren historia, musika bere kultura-testuinguruan (etnomusikologia), instrumentuak, formak, estetika, akustika, fisiologia...». Definizio horretan, etnomusikologia, musikologiaren barruan dagoen alor bat bezala aurkezten da, ikertzaile askok pentsatzen duten bezala. Beste batzuek, berriz, antropologia sozial eta kulturalaren azpisail bat dela uste dute. Ikuspegi hauek guztiak etnomusikologo batek izan ditzakeen profil ezberdinen eredu dira.

Gaur egun, etnomusikologiak bere esparru propioa behar duela aldarrikatzen duten ahotsak geroz eta ugariagoak dira, argudio irmo eta zentzu osoarekin, aurreko diziplinetatik independentzia aldarrikatuz, baina betiere, eskutik. Bestetik, eztabaidarekin jarraitzeak zentzu gutxi duela diotenak ere badaude, esate baterako Rubén López-Cano ESMUCeko ikertzaile mexikarra. Ildo beretik, Carlos Reynoso antropologo ospetsuari (2006: 237) ez zaio iruditzen diziplinaren adierak, mugak edota deiturak larritasun handiko arazoak direnik; izan ere, diziplinen banaketak ez die arrazoi sistematikoei men egiten. Nolanahi ere, ikuspegi guztiek dituzte argudioak beren tesia defendatzeko. Arloaren eztabaida etnomusikologiaren eskutik joango den etengabeko *leitmotiv*-a bihurtu da, antza.

## 2. Etnomusikologiaren bilakaeraren gakoak

Kultura Ondare Materiagabearekiko sentsibilizazioarekin gertatu zen bezala, musikologia, diziplina zientifiko gisa, XIX. mendearen amaieran Europan jaio zen. Orokorrean, musikologo historizistek mendebaldeko Europako eta Ipar Amerikako musika klasikoan (kultuan) jarri zuten arreta, gainerako errepertorioa alde batera utziz. Aldi berean, antropologiak, diziplina berri eta independente bat bezala, bere esparrua aldarrikatzen zuen. Gerora, antropologia sozial eta kultural bezala ezagutzen den arlo bilakatu da, gizarte ezberdinen azterketari eskainitako ohiturak, erakundeak, erlijio-sinesmenak, familia-bizitza, moralak, artea, eta abar ikertzen dituen

1. <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

2. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/terminologia\\_plangintza\\_lanak/eu\\_def/adjuntos/MusikaHiztegia.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/terminologia_plangintza_lanak/eu_def/adjuntos/MusikaHiztegia.pdf)

diziplina. Musika ere, gizakien manifestazio kultural bezala, antropologiaren interes-objektu izaten hasi zen. Folklorea, aitzitik, musikologiaren interesetatik at geratu zen hastapenetan, horrela, musika tradizionalaren ikerketa folkloristei egokitu. Erreferente den Enrique Cámara de Landa etnomusikologoak adierazi zuen bezala, musikologia konparatuaren ikertzaileen aurreuposizioak, helburuak eta lan egiteko moduak, ikerketa folkloristarekin konparatuta, guztiz desberdinak ziren (2016: 65-66). Etnomusikologiaren azterketa-helburuek arreta jarri zuten garrantzi etnikoa zuten musika edo fenomeno musikaletan. Lekuko musika tradizionalan erreparatu ordez, Mendebaldeko etnomusikologoek jakin-mina Europatik kanpoko musiketan zuten, haien zati exotikoa zena eta musikologiak aztertzen zuenetik urrun zegoena. Etnomusikologoak izan ziren urruneko lekuetako musika-tradizioei arreta zorrotza eta serioa ematen lehenak (Seeger, 2005).

Alan P. Merriam-ek *The Anthropology of Music* (1964) erreferentziatzeko argitalpenean idatzita utzi zuen etnomusikologiak ez zuela bere ikerketa-eremua leku geografiko konkretu batzuetara mugatu behar. Merriam-ek argi zuen antropologiatik zetorren musikaren azterketa kultura ikertzeko hurbilketa zientifiko bat zela, eta etnomusikologia, ikerketa horiek garatzeko alorra. Horregatik, etnomusikologia «musikaren azterketa kulturaren» edo «bere kulturaren» adieraz definitu zuen. Etnomusikologiaren interesak musikaren ulermen zabalago bat izatea izan behar zuen helburu, haren aburuz. Musika izanik fokua, kulturaren parte gisa funtzionatzen duen giza fenomeno sortzailea da, ez manifestazio isolatu bat (1960: 112). Bruno Nettl ikertzaile estatubatuar ospetsuaren aburuz, etnomusikologia kulturaren barnean egiten den musikaren ikerketa da, potentzialki, gizarte baten musika-adierazpen guztien azterketa (2005: 22-23). Alorrean aitzindari bezala aipatu gabe gelditu ezin den ezinbesteko beste figura bat John Blacking britainiarra da. *How Musical is Man?* (1973) liburuan, bai musika-egiturak zein gizarte-egiturak, kultura bateko prozesu kognitiboaren produktuak direla defendatu zuen. Beraz, beharrezkoa ikusten zuen korrespondentzia bat egotea gizarte-antolakuntzako eta musika-antolakuntzako arauen artean. Etnomusikologoaren zeregin nagusiak, hori kontuan hartuta, egiturazko harreman horiek ezagutzea izan behar zuen xede, Merriam etnomusikologo estatubatuarrek egindako definizioari anbizio handiko helburu konkretu eta interesgarri bat gehituta.

Ipar Amerikako korrante antropologikoaren barruan, Alan Lomax<sup>3</sup> musikaren azterketa estatistikoan murgildu zen. Iberiar Penintsulatik igaro zenean, besteak beste Euskal Herriatik barrena, azterketa etnomusikologikorako ezinbestekoak izan ziren soinu-grabaketak erregistratu zituen. Berak egindako euskarazko abestien grabazioak oinarritzko dokumentua dira garaiko euskarazko musika-tradizioa ulertzeko eta geratzen ziren kantu tradizionalen ezaugarriak aztertzeko. Baita ere, ordura arte soinu-grabazioetan erregistratu gabeko beste alderdi batzuk ezagutzeko aukera paregabeak dira dokumentu horiek. Lomax-ek musikaren analisi kantometrikoaren sistema garatu zuen, kulturaren alderdiak islatzeko, hala nola bizimoduak edo integrazioa.

---

3. <https://www.culturalequity.org/alan-lomax/about-alan>

Horrela, bada, hasierako musika-ikerketan hiru arreta-foku zeuden: Mendebaldeko musika kultu bezala ezagutzen dena eta lehentasunezko posizio hartzen zuena, Mendebaldeko herrialdeetako musika tradizionala edo folklorikoa, eta azkenik, Europaz kanpoko musika tradizionala, kutsu exotikoa zuena. Bereizketa horrek garaiko ikuspegi etnozentrismoa zuen atzetik. Gaur egungo ikuspegi batetik, eta Julian Woodside (2008) semiotikan adituak adierazten duen moduan, musika herrikoia, komunean hitz egiten den hizkuntza bat da, identitate partekatu baten isla eta memoria kolektiboaren eraikitzaile. Izan ere, ingurune akustiko jakin batean hazten den gizabanakoa ohituta dago soinu- zein musika-adierazpen batzuetara. Bizitzan zehar, soinu-objektu horietako asko desagertzen edo eraldatzen joango dira, beste batzuk paisaia soinudunean sartzen doazen bitartean.

### 3. Etnomusikologiaren eztabaidak

Musikologia konparatuaren eta, geroago, etnomusikologiaren definizioek diziplinaren beraren funtsezko eztabaidetako bat plazaratu dute: alegia, haren aztergaia. Edonola ere, etnomusikologia eta folklore musikala orokorrean lotu izan diren terminoak dira, eta ikertzaile zein gainerako musikari askok sinonimoak balira bezala erabiltzen dituzte maiz.

Badira etnomusikologiaren diziplinaren hasieratik landu diren eta gaur egun interesa pizten jarraitzen duten gaiak, hala nola etnomusikologiaren ertzak definitzeko eta mugatzeko galderak, edo kultura ezberdinekiko, batez ere minoritarioekiko jarri izan den arreta. Hala ere, azken urteotan, lan-eremuak anitz zabaldu dira: adibidez, musika mota berriak aztertzen ari dira etnomusikologiatik, hiri-musikak edo hiriko kulturen adierazpenak esate baterako, edota gutxiengoan eta etorkinen erreperitorioak. Aipatzekoa da, baita ere, genero-ikasketek arloan hartu duten presentzia. Musika-taxonomien inguruko jarrera-aldaketak etnomusikologiaren esparruan ez zeuden estilo eta alor berrien azterketa eragin du. Bestetik, IKTen hedapenak ekarri dituen aukerak direla medio, teknika eta metodo berriak barneratuz joan dira etnomusikologian, ikertzeko aukerak zabalduz edo jorratutako gaiak berrikusteko hautabideak eskainiz. Mendebaldeko musika eta kultura ulertzeko metodo etnomusikologikoak, orobat, musika kultua aztertzeko erabiltzen ari dira, besterik gabe, eraginkorrak direlako.

Etnomusikologiaren eragina agerikoa da musikologian, baita musikologiarena etnomusikologian ere. Besteren artean, musikologian, Mendebaldeko tradizioko musika klasikoaren esparrutik kanpo dagoen musikarekiko interesa argia da, musikologia/etnomusikologia alorrak lausotuz. Hori dela eta, etnomusikologia ez da hain erraz bereizten kontzeptualki musikologiatik.

Etnomusikologiak arloaren jaiotzetik dituen zatiketaren haziak daramatza bere baitan, beti egon baita bi esparru ezberdinez osatua: alde batetik musikologikoa, eta bestetik, antropologikoa. Beharbada, arazo nagusia da bien arteko nahasketa egitea, haien artean aintzat hartzen direlako, bata bestearen gainetik goraiatu gabe. Musika-sistema oro hizkuntza bat da berez, egiturak, arauak eta mekanismoak aztertzean, musikaren ulermen orokorra argitzeko gai dena. Bestalde, inoiz ez da

existitu «musika hutsa», kulturaren produktu eta adierazpena den heinean (Aubert, 2007: 10). Izaera bikoitz horrek etnomusikologiaren literatura markatu du: sektore batek musika baten egitura eta sistema ikertzen duen bitartean, beste batek, kultura-manifestazio beraren aurrean, giza kulturaren osotasun zabalago baten parte balitz bezala ikertzen du (Merriam, 1964: 3). Etnomusikologiaren historia gizartearen adierazpen-praktiken ideien eta kontzeptuen historiaren eskutik doa. Arloa, beste diziplina akademiko batzuekin estuki erlazionatuta, desberdinetan definitzen eta konfiguratu da. Ez dago, beraz, orokorrean onartutako diziplina-esparru baten aurreikuspenik, ez nazioarteko panorama akademikoan, ezta herrialde bakar batean ere (Morgenstern, 2018: 2). Eta, Bruno Nettl-ek dioen moduan, gaur egungo etnomusikologoek ez dute denborarik galtzen gizarte ezberdinetako musikak alderatzen, eta, zalantzarik gabe, ez dute konparatzen musikagintzaren alderdi batean edo bestean nor den hobea. Ikuspuntua jartzen da musika-kultura bakoitzean eta bere musika-munduarekin duen erlazioarekin, kultura ugariz osatutako mundu globalizatu konplexuan. Konparazioa erabiltzen da kulturen artean, nolabait antzekotasunak daudelako batzuetan eta ezberdintasunak beste batzuetan, konparaziotik ezagutza lor daitekeelakoan (2005: 20).

Aro postkolonialean murgildurik, gizartearen soinu- eta musika-aferek zein afera soziokulturalak jorratzen dituzten ikertzeko forma ontologiko eta epistemologikoen inguruan pizten dira arloko eztabaidak (Luján, 2015: 7). Azken hamarkadetan, esaterako, etnomusikologiak musikaren interpretazioaren analisisian duen interes espezifiko biziki handitu da, eta ez bakarrik partituretan: musika-grabaketak, bai entzunezkoak zein ikus-entzunezkoak, une konkretu batean idatzitako orria baino gehiago direla barneratu da. Azken batean, musika-notazioak baino iturri fidagarriagoa eskaintzen dute (Lutzu, 2016: 4).

Halaber, ikerketa performatiboen historiari erreparatuz gero, etnomusikologiak ikasketa-eremu horri eskaini dizkion hiru ikuspegi analitiko nagusi identifikatu daitezke: lehenengoa, musika-exekuzio edo interpretazio kopuru jakin baten arteko konparazioaren bidez, musika-sistema baten arauen multzoa identifikatzeko baliagarriak diren eredu analitikoak lantzean datza. Egiarki, beste kulturetako musika-sistemak deskodetzea, Mendebaldeko arte-musikaren bestelako lengoaien gramatika berreraikitzea, beti izan da etnomusikologiaren erronkarik erakargarrienetako bat. Bigarren ikuspegia, giza gorputzak, musika- zein dantza-emanaldietan gizakiak nola parte hartzen duen ikertzean datza. Hirugarren ekarpenak, eta beharbada esanguratsuenak, soinuaren eta testuinguruaren arteko erlazioaren azterketan jartzen du arreta. Musika, funtsean, testuinguru jakin batean baino ez da existitzen, kultura bateko manifestazio gisa (Cecchi eta Lutzu, 2020: 3-4).

#### 4. Folklorearen eta folklorismoaren arteko mugak

XIX. mendean, *folklore* terminoak, Europako herrialdeen nortasunaren aldarrikapenen agerpenarekin, «herriaren aurkikuntza» deitu izan denarekin batera, esanahi zehatz bat hartu zuen. Gaur egungo adiera XIX. mendearen erdialdetik dator, aipatutako momentu horretatik, goi-klaseen testuinguru soziokulturean asmatuta hain zuzen ere. Hortaz, sentsibilitate berri baten gorpuztea gertatu zen,

birra estetiko bat. Izan ere, «herriaren aurkikuntza» baino gehiago, folkloreaken «ber-aurkikuntza» bat izan zen, folklorea kontenplatzeko jarrera positibo eta idealista (Díaz, 2016: 28), gerora, folklorismo izenez ezagutua izan dena.

Josep Martí etnomusikologo katalanak azaltzen duen bezala, folklorea honela ulertu ohi da: bere interesa eta ikerketa-jarduera «kultura tradizionala» deritzonaren azterketara bideratzen duen diziplina akademiko bezala. Bestalde, *folklore* hitza kultura tradizional horren edukiei deitzeko ere erabiltzen da. Folklorismoaren kontzeptuak zerikusi handia du lehen aipatutako folkloreaken ideiekin, baina ez dira nahastu behar (1999: 82). Folklorismoa, modu labur batean esanda, sozialki, folklore deitzen dugun ondare kultural horren balorazio positiboa dakarren jarreramultzoa litzateke. Folklorismoa, horrela, ideiaz osatua dago. Esaterako, folklore horrenganako maitasuna eta begirunea edota sentimendu berezi bat eta ekintzarako joera, hau da, horrekiko sentsibilizazioa eta zabaltzeko grina: honetarako, besteak beste, kontserbazio-proiektuak eginez eta bultzatuz, edota tradiziozko ondare hori hedatzeko ekitaldiak, ikerketak zein jarduerak antolatuz. Hortaz, folklorea, zientzia gisa, jakintza-eremu baten esplorazio metodiko eta sistematikoa bada, folklorismoa, batez ere, sentimendu bat da, tradizioen mundu batekiko sentsibilitate berezi bat. Baina praktikan, bi alderdiak oso lotuta daude, eta mugak ez dira batere argiak eta zehatzak bata eta bestearen artean: nahasmena dago bai akademian zein herri-kulturan.

Hans Joachim Moser izan zen *folklorismo* adiera hizkuntza akademikoan txertatu zuena 1962. urtean, «Vom Folklorismus in unserer Zeit» artikuluan hain justu ere. Folkloreaken berrinterpretazioak eta horren bereganatzeak, hots, folklorismoak, ondare tradizionala kontzienteki edo inkontzienteki manipulatzeko duten faktore ugari biltzen ditu, bere funtzionaltasuna aldatuz, motibazioak beste batzuk direla kontuan hartuta (Siles, 2017: 43-44). Amades-ek adierazi zuen bezala, musika folklorikoa da folkloreaken zientziak «tradizional» gisa onartzen duena eta zientifikoki aztertzen duena (1961: 247).

Martí-ren aburuz (1999: 82-83), folklorismoa folkloreaken interesa pizten duen edozein elementu kulturalen bidez adieraz daiteke: berezko jantziak, kondairak, sukaldaritza, jaiak, etab. Tradizioaren kontzientziarik gabe, folklorismoa ez litzateke posible izango, eta kontzientzia hori, hain zuzen, tradizioaren ideian oinarritzen da. Egungo folklorismoa, fenomeno soziokultural gisa, ezin da ulertu folkloreaken lehen adituen lan eta ideiak kontuan hartu gabe. Kultura tradizionalaren gainean finkatu zen kontzeptu posterromantikoko hori gabe, kultura zenaren kontra zihonana eta hirietako kulturen kontrako gisa ulertuta, ez legoke folklorismorik, gaur egun ezagutzen dugun moduan behintzat. Hortaz, fenomenoaren ezagutzeko asmoa izanez gero, abiapuntutzat, folkloreaken zientzia hasiberri horren oinarri ideologikoa hartu behar da kontuan. Hiriko kulturak eta industrializazioak markatutako gizarte-eredu berriak kultur ondare materiagabearen balorazioa ekarri zuen, eta, ondorioz, horren desagerpenaren arriskuaren kontzientzia. Horrela, folklorea komunitate baten kultura egiteko moduen eta horrekin identifikatzen denaren multzo bezala ezarri zen (Siles, 2017: 39-40). Nahasmena handia da, folklorea bai ikasketa-materia zein diziplina zientifikoa bera izendatzeko erabiltzen delako.

Azaldu den bezala, *folklore musikala* terminoaren anbiguotasuna gertatzen da, definizioak hainbat ikuspegi hartzen dituelako. Lehenik eta behin, bere jatorrizko esanahiaren funtsean, ahozko tradizioen bilketa eta inbentarioa biltzen du, xedea askotan mehatxatutako ondarea babestea, zaintzea eta aztertzea izanik. Bigarrenik, idealizazio erromantikoaren irudikapena, nazio baten enblema eta landa-eremuaren nolabaiteko herrimina, modernitatearen *alter ego* hauskorra, eta memoria kolektibo abertzalearen iturria (Aubert, 2007: 48).

Ez da non-nahikoa folkloreak ezaugarritzat, nolakotasun klasikoetako bat, antzintasuna hartu izana, hau da, folklorista askok hartu duten irizpidea folklorea zer den eta zer ez den esateko (Martí, 1999: 84). Baina, folkloreak antzintasuna inoiz ez zen benetan existitu: egiazki, haren jatorria ezagutzen badugu ere, ia erabat berrinterpretatu eta eraldatzen da folkloreak etengabeko eguneratzearen ondorioz, bizirik irauteko. Gainera, ahozkotasanak, desagertzetik urrun, adierazpide berriak eta transmisio-bide berriak bereganatu ditu (Díaz, 2016: 36) gure Aro Post-digitalean. Baina arazo horri dagokionez, garrantzitsuena, komunitate jakin baten barruan, etniko edo ez-etnikotzat hartzen dena ezin dela objektiboki zehaztu daitekeen zerbait izan onartzean datza, gizarte-elaborazio bat delako, errealtatearen eraikuntza sinbolikoa.

Ikertzaileek, etengabe «deskubritzen» ari diren materialen gehitze soilarekin, edozein herrialdetako *corpus* folklorikoa osatzen dutela uste duena inozoa litzateke, Josep Martí-k adierazi zuen bezala. Ikertzaileak *corpus* hori egiten eta eratzen ari dira beren gizartearen orientazio kognitiboaren arabera. Azken batean, gizarte baten irizpideen eramaileak dira, eta haiek erabakitzen dute aurkikuntzen artean zeintzuk diren argitaratu eta zabaldu behar direnak, eta zeintzuk alde batera geratzen direnak. Modu horretan, folklorismoak inplikatzeko du tradizioaren kontzientzia izatea eta horren irizpideen arabera haren objektu bihurtzen diren elementu kultural ezberdinen aukeraketa bat egitea. Elementu kultural horiek folklorismoaren parte bihurtzen dira, eraldaketa formal batzuk eta, aldaketa semantiko sendoen ondoren, erabilera sozial berriak ahalbidetzeko. Funtsean, helburu estetiko, ideologiko edo komertzialei erantzuten dietenak (Martí, 1999: 87-88). Modu batez, folklorismoa herri-ondarea manipulatzeko datza entitate politikoen zein turismo-sustatzaileen partetik. Ustezko espezialisten antzeppen eszenikoak eta moldaketa orkestratuak aurreikus daitezke adierazpen folkloristen artean, zeinek tradizioa publiko «kanpotar» bati aurkeztea duten xede (Aubert, 2007: 49).

XX. mendean, *folklore* terminoak birformulazio-prozesu bati ekin zion, hura definitzen zuten faktoreak zalantzan jarri ondoren. Oroimen kolektiboa eta ondare kulturala, ideia bezala, neutroagoak dira, eta alderdi akademikoetan gehiago erabiltzen dira egun. Orientazio-aldaketa horrek globalizazioak dakarren aldakuntza handietan du bere erroa, planeta osoko sistema ekonomiko, teknologiko, politiko eta kulturean izan duen eragin zorrotzarengatik (Siles, 2017: 41). *Folk* musikaren existentzia mundu modernoan onartzeko, herri-musika genero gisa mugatzeko aspaldidanik erabiltzen dituzten teoria kontserbadore asko birformulatu behar dira: isolamenduaren ideiak, landatasunarenak edo ahozko tradizio hutsarenak eguneratze bat eskatzen dute. Hain zuzen ere, mundu modernoko musikaren

testuinguru ugariak agerian uzten dute musika-aldaketak modu multidimentsional batean gertatzen direla (Bohlman, 1988: 139-140).

XXI. mendean, etnomusikologiaren norabideak inoiz baino askotarikoagoak dira. Analisi musikalaren eta sozialaren arteko zatiketa ez da, garai batean bezain bat-batekoa, neurri handi batean bi alderdiak behar bezala jorratzeko antzematearen beharragatik. Globalizazioak, mundu-mailan, musikaren deskontestualizazioa dakar, eta hori izan daiteke gaur egungo etnomusikologiaren erronka handienetako bat. Arian ere, historian inoiz ez bezala konektatuta dagoen gizartean, kultura ezberdinen musika tradizionalak ez daude isolaturik, eta benetakotasuna disolbatu egiten da konplexutasun horretan. Testuinguru hauen gainetik, etengabe kokatzen da musika sortzearen marko ideologikoa, eta, ez gutxiago, ikertzailearen kontzientzia politikoa eta jarrera etikoa (Porter, 1995: 9-10).

Aurreko lerroetan ikusitakoarekin, eta Josep Martí-k aipatu bezala, nekez aurkituko dugu folklore eta folklorismoaren behin betiko definizio bat, komunitate guztiek onartzen dutena behintzat (1999: 83). Ez da lortu «musika tradizionala» zer den definitzea ere, horregatik, folklore eta folklorismoaren eztabaida zientifikoak bide luzea du oraindik.

## 5. Etnomusikologia non ikasi?

Arloaren aferarekin batera, Etnomusikologiako ikasketek ere badute berea. Espainian, Etnomusikologiako Gradua ez dago eskuragai ez goi-mailako kontserbatorioetan, ezta unibertsitateetan ere, publiko zein pribatuetan. Aldiz, Musikologia eta Musikaren Zientzia eta Historiako Gradua (unibertsitateetan), zein Musikologiako Goi Mailako Titulua (kontserbatorioetan) ikasteko aukera dago. Unibertsitate publikoei dagokienez, Musikologiako Gradua Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean<sup>4</sup> eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan<sup>5</sup> ikas daiteke, eta Musikaren Zientzia eta Historiako Gradua, berriz, Oviedoko Unibertsitatean<sup>6</sup>, —Espainian lehenengoa ikasketa hauek eskaintzen— eta Granadako Unibertsitatean<sup>7</sup>. Goi-mailako kontserbatorioei dagokienez, esan bezala, Musikologia ikas daiteke, baina ez gradua, duten berezko legedia dela eta: gradu baten baliokideak diren tituluak ematen dituzte, baina ez dira graduak, hau da, «graduak ez diren graduak» dira. Kasu horretan kokatzen da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, publikoa dena, eta Musikologiako Goi Mailako Titulua ematen duena<sup>8</sup>. Titulu horren legedia, 34/2014 Foru Aginduan dago, apirilaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, musikako Goi Mailako Arte Ikasketen plana ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokitzeko<sup>9</sup>. Lege horren 2. artikuluan, «Musikako goi mailako ikasketen antolamendua» arautzen duena, 1. puntuan, honela dio: «1. Nafarroako Foru Komunitatean ezarrita dauden

4. <https://www.ucm.es/grado-musicologia/>

5. <https://www.uab.cat/web/estudiar/listado-de-grados/informacion-general/musicologia-1216708258897.html?param1=1223967775545>

6. <https://www.uniovi.es/-/grado-en-historia-y-ciencias-de-la-musica-2013>

7. <https://grados.ugr.es/musica/>

8. <https://csmn.educacion.navarra.es/web1/organizacion/departamento-de-musicologia/>

9. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2014/89/1#>



musikako goi mailako ikasketek ondoko espezialitateak dituzte». Laugarrenean, Musikologia aipatzen da. I. eranskinean, gaitasunak eta lanbide-profilei buruzkoan, Musikologiako espezialitatean, 5. puntuan, hauek aipatzen dira:

- Mendebaldeko tradizioko eta beste batzuetako errepertorioetako obren musika egitura ezagutzea, eta gai izatea haien sintaxi eta soinu alderdiak erabat baloratzeko.
- Musikaren sorkuntzak eta interpretazioak izan dituzten baldintza artistiko, historiko eta sozialak ezagutzea.
- Musikako materialak, konposizioaren eta instrumentuen teknika historiko eta modernoak, eta instrumentuen eraikuntza eta akustika ezagutzea, baita beste ezaugarri organologiko batzuk ere.
- Ongi jotzen jakitea bere jardueraren arlo nagusiarentzat egokiak diren instrumentu egoki bat edo gehiago.
- Musika iturriak eta haietara iristeko tresnak ezagutzea, baita haiek hedatzeko behar diren teknikak ere.
- Bere arloko ikerketa zientifikoaren metodoak eta haien aplikazioak ezagutzea.
- Garai desberdineko musika jardueraren produktuak baloratzeko gaitasun kritikoa izatea, alderdi artistikoak, historikoak eta sozialak integratzen dituen ikuspegitik.
- Interpretazioari buruzko ikuspegia idatzita eta hitzez argudiatu eta adieraztea, eta musika obra ulertzen laguntzeko erronkari erantzutea.

Bestetik, 9. puntuan, Musikologiaren espezialitaterako lanbide-profilari buruzkoan, aipatzen da:

Musikologiaren goi mailako tituludunak profesional kualifikatua izan behar du, ikuspegi orokor eta ulerkor batetik, musika bere alderdi guztietan (teorikoa, teknikoa, praktikoa eta materiala) kultur garai eta tradizio guztietan ulertzeko.

Literatura kritikoaren iturrien ezagutza zabala izan beharko du musikologiaren arlo eta diziplina guztietan.

Askotariko notazio sistemak, historikoak zein modernoak, ezagutu beharko ditu, baita soinu dokumentuen transkripzio eta tratamendukoak ere. Musika iturriak argitaratzeko praktika eta prozesu horietako tresna teknologikoak ezagutu beharko ditu. Bere diziplinako ikerketa zientifikoaren metodoak ezagutu eta aplikatu beharko ditu, eta azalpen eta hitzaldietako teknikak menderatu, gauza izan dadin bere proiektuen edukia eta bere ikerketen emaitza jende espezializatuei zein espezializatu gabeei helarazteko.

Nafarroako Goi Mailako Musikako Kontserbatorioan 2019. urtean egindako oposizioen ondorioz Etnomusikologiako katedradun bat<sup>10</sup> dago zentroan. Etnomusikologiako irakasgaia, bi espezialitatean ematen da: 3 urtez Txistuko tituluari, eta lau urtez Musikologiakoan, 6 kreditu ikasturte bakoitzeko<sup>11</sup>. Legearen arabera eta deskriptorea ikusiz, hauek dira irakasgaiaren edukiak:

Herri eta tradizio musikaren iturriak eta metodologia. Hainbat kulturatako musikaren ezaugarriak, estiloak eta generoak ezagutzea, eta horiek elkarrekin

10. <https://csmn.educacion.navarra.es/web1/carolina-queipo/>

11. <https://www.navarra.es/NR/exeres/DDBAF9C7-9860-4582-9EB4-42E8693A14D7.htm>

alderatuz aztertzea. Musika tradizionalaren, herri musikaren eta musika kultuaren arteko erlazioa. Musika eta komunikabideak. Herri musikei buruzko ikerketaren historia eta etnomusikologia garaikideko ikerketako ildo nagusiak aurkeztea. Herri organologia. Musika tradizionalaren baliabide estilistikoak, formalak, harmoniazkoak, erritmikoak eta fonetikoak. Tonuan jartzeko sistemetara hurbiltzea.

Espainiako Estatuko goi-mailako kontserbatorioetan, Musikologia ikasteko aukera gehiago daude, besteak beste Madril<sup>12</sup>, Murtzian<sup>13</sup>, Sevillan<sup>14</sup>, Kanaria uharteetan<sup>15</sup> edota Gaztela eta Leongo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan<sup>16</sup>, besteak beste. Azken horretan, «Musikologia eta Etnomusikologia» arloak batzen ditu graduaren izenburuan bertan, bi ikasketa-bideak eskaintzen direlako.

Nahasmena handitzeko, kontserbatorio zein unibertsitate pribatuek, graduak eta Musikako Goi Mailako Tituluak eskaintzen dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Goi Mailako Musikako Ikasketak, 2001. urtetik aurrera, fundazio pribatu baten bidez kudeatzen dira<sup>17</sup>:

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuak, Musikene, izaera juridiko berezko eta banandua du, eta bere estatutuen eta ezartzen zaizkion lege xedapenen bitartez arautzen da. Fundazioaren finantzazioa, gehienbat, Eusko Jaurilaritzak emandako diru-langintzetatik dator.

Hemen, momentuz, ez dira Musikologia edo Etnomusikologiako Goi Mailako Tituluak eskaintzen.

Iparraldeko egoerari dagokionez, Frantziako musikako ikasketek beste araudi ezberdin bat dute. Laburbilduz, Frantzian, kontserbatorio erregionalak (CRR), departamenduetakoak (CRD), udaletakoak (CRC), udal artekoak edo mankomunatuak (CRI) eta nazionalak (CNSMD) daude. Azkeneko aukera horretan, bi daude Frantzia osoan: Pariskoa<sup>18</sup> eta Lyongoa<sup>19</sup>. *Conservatoire Maurice Ravel Pays Basque* / Iparraldeko Kontserbatorioa<sup>20</sup> da Euskal Herriak Frantzian duen Kontserbatorio Erregional bakarra (*Conservatoire à Rayonnement Régional*) eta ez da ez Musikologia ezta Etnomusikologiako ikasketarik ere eskaintzen. Aldiz, euskal musika tradizionalako ikasketak<sup>21</sup> eta euskal dantzen ikasketak daude, «Zabala modulua»<sup>22</sup> izenpean.

Ameriketako bi kasuei begira, lehenik, aipagarria da Mexikoko kasua. Izan ere, Universidad Nacional Autónoma de México-k (UNAM), ez du Musikologiako

---

12. <https://rcsmm.eu/estudios/departamentos/departamento-de-musicologia/?m=2&s=4&a=69>

13. <https://www.csmmurcia.com/musicologia/>

14. <https://consev.es/plan-de-estudios/>

15. <http://www.internationalcsmc.es/licenciatura-en-musicologia.html>

16. <https://coscyl.com/planes-de-estudios/grado-plan-de-estudios/musicologia/>

17. <https://musikene.eus/historia/?lang=eu>

18. <https://www.conservatoiredeparis.fr/fr>

19. <http://www.cnsmd-lyon.fr/>

20. <https://www.ospb.eus/>

21. <https://www.ospb.eus/scolarite/enseignements-artistiques/musique/les-3eme-cycles-musiques-traditionnelles/>

22. <https://www.ospb.eus/scolarite/module-zabala/>

Lizentziatura eskaintzen, baina bai Etnomusikologiakoa<sup>23</sup>. Ikasketen deskribapenean, musika-kultura desberdinak aztertzea eta erregistratzea dedikatzen diren ikertzaileak prestatzen dituela azaltzen da, bereziki, Mexikoko herrialdea osatzen dutenei garrantzia emanaz. Musikaren teoria eta praktikaren alorrean, eta Gizarte Zientzietan izan duen prestakuntzak, etnomusikologoari erregistro-zereginak garatzeko, musika-azterketa, analisi historiko eta soziokulturala zein musika-adierazpenen analisisa egiteko prestakuntzak eskaintzen dira, ikasketa-planaren aburuz. UNAMetik, etnomusikologoaren lanaren garrantzia musikak gizakiaren eta gizartearen bizitzan duen eginkizun transzendentalaren hausnarketan eta ezagutzan datzala azpimarratzen da. Modu horretan, Mexikoko hainbat musika-adierazpenek nazio-identitatearen desberdintasun kulturalak errespetatzen dituen gizartea eratzeko duten funtsezko eginkizunaren kontzientzia soziala sortzen laguntzen duen profesionala litzateke etnomusikologoa. Horregatik, titulu hori musikaren aberastasuna aztertu, ezagutarazi eta zabaltzeko bide bat bezala planteatuta dago. Etnomusikologian lizentziatua mexikarren ondare kulturalaren alderdi musikala zaintzen eta defendatzen duen profesionala litzateke, geratzen denarena, gutxienez: egiazki, lehenengo Espainiako konkistak eragin zuen sarraskia, eta bigarrenik, gaur egungo globalizazioak dakarren kanpoko eragina dugu. Mexikoko kasuan, gehienbat Ameriketako Estatu Batuetatik (AEB) datorren influentziak haien kultura materiagabeak duen aberastasuna, musika tartean, arriskuan jartzen du, hain oparoa eta kosmopolita den herrialdean.

Bigarren kasu nabarmen bat aipatzearren, University of California, Los Angeles (UCLA) eta Herb Alpert School of Music zentroaren kasua dugu. Han, *Bachelor*, *Master* eta *Doctor of Philosophy* ikasketak eskaintzen dira bai etnomusikologian<sup>24</sup> zein musikologian<sup>25</sup>. Arloaren deskribapenean, UCLAn, etnomusikologiaren zeregina mundu osoko musika mota guztiak aztertzea dela diote, diziplina-ikuspegi desberdinak erabiliz. UCLAko Etnomusikologia Saila, AEBko handiena da. *Bachelor*<sup>26</sup> ikasketak burutzen dituztenentzat, eta web-orrialdean azaltzen den bezala, mundu osoko musika-adierazpen ugari aztertzen dira, musika-esperientzia praktikoak ikasketa akademikoekin konbinatuz. Munduko eskualde ezberdinetako eta zehazki AEBko talde etnikoen musika lantzen duten ikastaroak egiteko aukera ematen diete ikasleei, baita musika tradizionalari eta zinemako musikari buruzko mintegiak ere. Gainera, ikasleek, mundu osoko musika-tradizioen antzezpena aztertzeko, saileko munduko musika-tresnen bilduma paregabeaz eta interpretazio-adituen fakultateaz baliatzen dira. UCLAko Etnomusikologiako Master eta doktoretza-ikasketak<sup>27</sup>, musika, testuinguru kultural eta sozialetan ikertzen du. Musika-komunitate globalak aztertzeko, UCLAko programak diziplina-ikuspegi ezberdinetatik, musika, praktika sozial gisa ulertzeko prestatzen ditu ikasleak: historia intelektuala eta haren aldaketa paradigmaticoak, ikerketa-metodologia ezberdinak edo landa-lan etnografikoak, besteren artean.

---

23 <https://www.fam.unam.mx/campus/licenciaturas.php#demoTab6>

24. <https://schoolofmusic.ucla.edu/academics/ethnomusicology/>

25. <https://schoolofmusic.ucla.edu/academics/musicology/>

26. <https://schoolofmusic.ucla.edu/academics/ethnomusicology/ba/>

27. <https://schoolofmusic.ucla.edu/academics/ethnomusicology/ma-phd/>

## 6. Eztabaida

Oraindik ere, nola ez, bertakoa ez den musika ikertzen jarraitzen da Mendebaldeko herrietako etnomusikologiatik, baina arloaren hastapenetatik urrun, beste posizionamendu batetik. Etnomusikologiak ikuspegi etnozentrista alde batera utzi nahi du, nahiz eta beti ez lotu, munduko gizarteen tradizioekiko errespetua sustatzeko, berdintasunean. Egun, arloak bere bide propioa eraikitzen jarraitzen du, nahiz eta antropologiarekin zein musikologiarekin, metodologiak, erabilerak eta ikerketarako interes-eremuak partekatzen jarraitzen duen. Horrela, bada, XXI. mendeko lehen laurdena betetzeko gutxi falta denean, etnomusikologia alor bezala guztiz ezarrita dago musikan, akademian eta, azken batean, zientzian.

Folkloreari buruz, aipatu den bezala, herriaren eta hiriaren arteko dikotomian jarri zen ardatza hasieran, lehenengoaren idealizazioa bermatu nahian. Helburu nagusia zen ustezko benetako tradizioen balioak kontserbatzea, kanpoko erasoak eta eraginak ekiditeko. Horrez gain, Europako beste kultura batzuetan arreta jartzen hasi ziren herrialdeetako erakunde, elkarte eta biztanleak, eta haien artean, ikertzaileak. Industria Iraultzarekin batera, eta hiriek kultur nukleo gisa hartu zuten garrantziarekin batera, protoglobalizazio bat hasi zen kulturaren, eguneraino hedatu dena. Landa-munduaren eta hiri-munduaren arteko harremanak, gaur, aurreko garaietan baino garrantzi handiagoa dauka. Baina, argi izan behar dugu «folklore», kontzeptu bezala, giza kulturaren asmakizun bat dela, horren atal jakin bat osatzen duena.

Etnomusikologiaren etorkizunerako, berebiziko garrantzia du diziplinaren historia intelektuala sakonago ezagutzeak. Ikertzaileen abian jarritako teoriaren eta metodologiaren berrikuntzen onarpena, baita iraganeko eztabaida kritikoena ere, funtsezkoa da arloaren kokapen akademikorako eta etorkizuneko agendetarako, Morgenstern-ek seinalatu zuen bezala (2018: 24). Azken batean, inguruko diziplinekin eta beste proiektu intelektual batzuekin elkarrekiko harreman justuago eta harmoniatsuetara iristen lagun diezaieke kultura adierazkorraren azterketan. Etnomusikologian ikertzen dutenak, urteen poderioz, orokorrean, beren jarrera irekitzen joan dira. Aldaketa ez da izugarria izan, pixkanaka gertatu da, baina esanguratsua dela ondoriozta daiteke. Musikologiarekin eta Antropologiarekin elkarbizitzan, eremuak batera aurkitzen dira espazio batzuetan, baina beste batzuetan bananduta jarraitzen dute. Denis Laborde-k dioen bezala, etnomusikologiak ez du bere zilegitasunari buruzko zalantzarekin jarraitu behar, ezta kezkatu ere mundu akademikoko espazioan leku bat diseinatzeaz. Diziplina «gazte» honek duen ibilbidea hor dago, eta alferrikakoa da, une honetan, etnomusikologiak ezertarako balio duen galdetzea (2008: 41).

Etnomusikologiak metodo analitikoaren multzo bat garatu du, esan bezala, ikuspegi antropologikoari zein ikuspegi musikologikoari erreferentzia egiten diena. Musikaren eta gizartearen arteko harremana aztergai izanda, izaera bikoitzak nolabaiteko tentsio bat, bipolaritate bat islatzen du, labur-zurrean, bi logika gutxi-asko esplizituen artean, bi erreferentzia-esparru ezberdinen artean. Diziplinako egitate izanda, galdera nagusia, ordea, ez da alderdi antropologikoak ala musikologikoak nagusitasuna duen, baizik eta biak bateratzeko modurik ote dagoen.

Ruben López-Cano-ren iritziz (2007: 10), musikologia eta etnomusikologia kategoriek ez dute oso ondo funtzionatzen diziplina-joerak definitzeko, eta musika-ikerketak guztiak musikologia izeneko diziplina bakarrean barne hartzea ezinezkotzat jotzen du. Gainera, haren aburuz, zilegi da ikerketa-komunitate bakoitzak bere interesak eta metodoak definitzea. Baina zalantzazkoa izango litzateke gainerakoentzat baliozko edo ereduizko metodo bakarrak balira bezala inposatzeko asmoekin egingo balitz. Gogoeta honek zenbait zalantza eta eztabaida-eremu irekitzen ditu, hala nola zeintzuk diren etnomusikologo batek egin beharreko ikasketak, azaldu den egoera akademiko korapilatsua ikusita. Guztiarekin ere, ikasketa propioak izateko garaia heldu zaio arloari, bai kultura-ondare materiagabea babestu nahi bada, bai gaur egungo inguruko musika ulertu ahal izateko dugun testuinguru anitz, zehaztugabe, oparo eta aldakorrean. Horretarako, lana sobera dago egiteko: elkarrizketarako eta interakziorako espazioak sortu behar dira, diziplinartekotasunezko espazio berriak, ikasketa-objektu berriak eraikitzeko joera duten diziplina-eremuak, gero denborarekin zaharkituta geratuko diren eta berreraiki beharko diren diskurtso berriak.

Mexikon edo AEBn egin duten bezala, Euskal Herriak ikasketa hauek eskaintzeko ahalegina egin beharko luke, dugun altxorra modu zientifikoan aztertzen jarraitzeko, gero eta ikertzaile gehiagorekin. Horiek, gainerako biztanleekin batera, iraunarazteko ahalegina handituko lukete oso, gizarteari ondare hau ulertarazteko gakoak eskainiz eta, herrialde bezala, XXI. mendeko munduan gaur egungo euskal kultura integratzeko bide bat eraikiz, horretan urtu gabe eta kanpoko eraginak adeitasunez gizarteratzeko. Heldu da garaia.

## 7. Bibliografia

- Aubert, Laurent (2007): *The music of the other. New challenges for ethnomusicology in a Global Age*, Ashgate, Britainia Handia.
- Blacking, John (2006): *¿Hay música en el hombre?*, Alianza Editorial, Madril. (jatorrizko bertsoia: (1973): *How Musical is Man?*, University of Washington Press, Washington).
- Bohman, Philip V. (1988): *The Study of Folk Music in the Modern World*, Indiana University Press, Bloomington.
- Cámara de Landa, Enrique (2016): *Etnomusicología*, ICCMU, Madril.
- Cecchi, Alessandro eta Lutz, Marco (2020): «Interdisciplinary perspectives on musical performance: Historical and recent research», in Gianmario Borio, Giovanni Giurati, Alessandro Cecchi eta Marco Lutz (argtz.), *Investigating Musical Performance: Theoretical Models and Intersections*, Routledge, Londres, 1-33.
- Díaz, Luis (2016): «Les noves formes de folklore i els avatars del folklorisme entre visibilitat i invisibilitat», *Revista d'etnologia de Catalunya*, 41, 28-36.
- Laborde, Denis (2008): «A etnomusicologia serve ainda para alguma coisa?», *Música em contexto*, 1, 27-46.
- López Cano, Rubén (2007): «Musicologías vs. Etnomusicología ¿Un falso debate?», *Etno-Boletín Informativo de la SIBE*, 16, 6-10.
- Luján Villar, Juan David (2015): «Etnomusicología de las músicas turbias: consumos culturales, raza y etnicidad», *Esfera*, 5(1), 5-20.
- Lutz, Marco (2016): «Representing Performance in Ethnomusicological Studies», *El Oído Pensante*, 4, 1-37.

- Martí, Josep (1999): «La tradición evocada: folklore y folklorismo», in Eloy Gómez Pellón, Luis Díaz Viana eta Josep Martí (argtz.), *Tradición oral*, Editorial Universidad de Cantabria, Santander, 81-108.
- Merriam, Alan P. (1960): «Ethnomusicology. Discussion and Definition of the Field», *Ethnomusicology*, 4(3), 107-114.
- Merriam, Alan P. (1964): *The Anthropology of Music*, Northwestern University, Chicago.
- Morgenstern, Ulrich (2018): «Towards the History of Ideas in Ethnomusicology. Theory and Methods between the Late 18th and the Early 20th Century», *Musicologist, International Journal of Music Studies*, 2(1), 1-31.
- Nettl, Bruno (2005): *The Study of Ethnomusicology. Thirty-one Issues and Concepts*, University of Illinois Press, Chicago.
- Porter, James (1995): «New perspectives in ethnomusicology. a critical survey», *Trans, Revista Transcultural de Música*, 1.
- Reynoso, Carlos (2006): *Antropología de la música: De los géneros tribales a la globalización, vol. II. Teorías de la complejidad*. Editorial SB, Argentina.
- Seeger, Anthony (2005). Liburu honen hitzaurrean aipatuta: Aubert, Laurent (2007): *The Music of The other. New challenges for ethnomusicology in a Global Age*, Ashgate, Britainia Handia.
- Siles, Laura (2017): *El uso del folklore como búsqueda de identidad en la creación artística de la era global. Desde una perspectiva diferencial entre los casos vasco y andaluz en obra de carácter sonoro*, doktore-tesia, UPV/EHU, Leioa.
- Woodside, Julian (2008): «La historicidad del paisaje sonoro y la música popular», *Trans, Revista Transcultural de Música*, 12.